11.ZK/ABENDUA 2016 • BILBOKO IKASTETXEEN ALDIZKARIA

ELGERA



ALONSO ROBLES FERNANDEZ DE CAÑETE

“ASKO GUSTATZEN ZAIT ERRALDOIAK ERAMATEA ETA HORREGATIK JARRAITU NAHI DUT”



3 Bilboko euskalgintza
4 Elkarrizketa
6 Inkesta
7 Jarduerak
8 Euskararen Eguna
10 Erreportajea
12 Dantza
13 Teknologia berriak
14 Ikus-entzunezkoak
15 Bitxikeriak
16 Jarduerak
17 Denbora-pasak
18 Auzoak



aurkibidea

ELGERA 11. ZB abendua

20 Lanbide Heziketa
22 Kirola
23 Elorri Bertso-Eskola







Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adrian BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle Bilbao HLBIP, San Inazio BHI eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.
Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.400. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

EGIN BAT

Apirilaren 6an helduko da Bilbora 20. Korrika

Otxandion hasiko da 20. Korrika martxoaren 30ean, eta Iruñean amaituko da apirilaren 9an. Bilbotik apirilaren 6an pasako da, osteguna. *Batzuk* lelopean, 20. Korrikak bere sortzaileak omenduko ditu.

Argazkiak - *www.korrika.eus*

Urte birik behin egiten den moduan, Korrikaren lekukoak Euskal Herriko kale eta errepideak bisituko ditu 2017ko udaberrian. 1980an hasi ziren antolatzen eta dagoeneko, 20. ekitaldira heldu da AEKren eta euskeraren aldeko lasterketa berezi hau.

Leloa *Batzuk* izango da. Batzuk bat baino gehiago da eta, modu horretara, hizkuntzak eta kulturak daukaten aniztasuna azpimarratu nahi dute. Gainera, herritarrei euskarara hurreratzeko gonbidapena ere badago leloaren atzean, "bat" eta "zuk" kontzeptuekin berba-jokoa eginez. "Hizkuntza, kultura eta mundu BAT sendotzeko bidean, ZUK ere bat egin dezakezu", azaldu du Asier Amondo Korrikako zuzendariak. Norberaren hizkuntza-aberastasuna eta munduko hizkuntza aniztasuna bizi izatera dei egin die herritarrei, "ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz".



Korrikak jendea batu egiten duela adierazteko, irudi koloretsua diseinatu dute 20. ediziorako. Kolore askotako hondoaren gainean, kolore zurian ageri dira "batzuk" berbearen sei hizkiak.

Korrikaren sortzaileak omenduko dituzte 20. edizioaren aitzakiarekin. 1980an hasi zen Korrika martxan eta harrezkero, Amondok adierazi duenez, "euskalgintzaren, euskal kulturaren eta euskararen erreferentzia bihurtu da". Halako ekimen bateratzaile bat sortzeagatik omenduko dituzte Korrikaren hasierako antolatzaileak.

Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaileak esan duenez, "aurreko Korrika amaitu zenetik euskaraz bizi izateko aukera sendoagoa da euskal gizartean". Euskararen normalizazioan sakontzeko, baina, ezinbestekoa da helduen espazioek be euskaraz funtzionatzea. Hori da "AEKren urteotako zeregin nagusia", azaldu du Mujikak.

www.korrika.eus

“Asko gustatzen zait erraldoia eramatea, eta horregatik jarraitu nahi dut”

ONDALAN ERRALDOIEN KONPARTSAKO KIDEA



Alonso Robles Fernandez de Cañetek, Deustuko Salestar ikasleak 12 urte dauzka eta Ondalan Erraldoien Konpartsan parte hartzen du erraldoiak eramaten. Zortzi urterekin hasi zen, baina erraldoiak eramatea ez du bere zaletasun bakarra; bere aisialdian futbola, txistua... ere praktikatzen ditu, ikasketak ahaztu barik noski.

Astean, zenbatetan praktikatzen duzue? Non?
Astean behin praktikatzen dugu, igande goizero, Deustun dagoen lokal batean.

Zenbat erraldoi behar dira dantza baterako? Zer motatako dantzak egiten dituzue?
Bikoteka egiten dira dantzak; beraz, bikoitiak izan behar dira (2, 4, 6...) edozein dantzatarako. Kalejirak, balsak, jotak eta polkak (amaieran) dantzatzen ditugu.

Zenbat zarete taldean? Eta zenbat erraldoi eta buruhandi daude?
Ondalan taldean guztira 50 gara. Gure konpartsan 14 erraldoi, 8 buruhandi eta 4 zaldi daude.

Zein da zuk eramaten duzun erraldoia? Eta zein da zure gustukoena? Asko frogatu al dituzu?
Nik normalean Pilotaria eramaten dut baina inoiz Ikatza, Esnea eta Laialaria erraldoiak dantzatu ditut. Nire gustukoenak Pilotaria eta Laialaria dira. Ezin izan ditut handiak frogatu pisu handia dutelako, eta ni oraindik gaztea naizelako.

Leku askotan egon zarete, baina zein izan da egon zaren lekurik interesgarriena? Festa ezagunen batean parte hartu al duzue?
Bisitatu dugun lekurik bereziena Olentzeroren Etxea izan da, Mungian. Festei dagokionez, Bilboko jaietan egon gara, beste askoren artean.

Noiz sortu zen Ondalan taldea?
Ondalan konpartsa orain dela 20 urte sortu zen, 1996. urtean hain zuzen ere. Beraz, badugu esperientzia handia erraldoiekin eta mundu honekin.

Nola moldatzen zarete erraldoiak, buruhandiak... garraiatzeko?
Normalean kamioi bat alokatzen dugu erraldoiak eramateko; baina, Deustutik ibiltzen garenean ez dugu kamioirik behar, gure lokala hor dago eta.

Zer dela eta hasi zinen mundu honetan? Noiz?
Kalean ikusi nituelako; asko gustatu zitzaizkidan. Orain dela lau urte hasi nintzen erraldoiak eramaten.

Non egiten dira erraldoiak? Nola?
Azken biak izan ezik Larrabetzun egin ziren besteak, Kukubiltxo taldea arduratu zen. Azkenak Abadiñon egin zizkiguten. Oso prozesu luzea da erraldoiak egitearena; gaur egun, beira-zuntza erabiltzen dute.

Zenbat neurtu eta pisatzen du erraldoi batek? Eta zureak?
Lau taldetan sailkatzen ditugu altuera eta pisuaren arabera. Txikienek 2 metroko altuera dute eta, 7-9 kiloko pisua. Ertainek, 3 metro eta 22 kilo. Hurrengoek, 4 metro eta 32 kilo; eta handienek , 4 metro eta 43 kilo. Nik eramaten dudana, Pilotaria, 2. taldean dago.

Beste ekintza edo kirolen bat egiten duzu? Zein?
Horretaz aparte futbola ere egiten dut, txistua jotzen dut…

Luzaroan jarraitzeko asmoa duzu? Etorkizunik ikusten al diozu erraldoien munduari?
Bai, asmoa dut mundu honetan jarraitzeko asko gustatzen zaidalako. Beste toki batzuetan ere erraldoien konpartsak daude, eta arrakastatsuak dira. Horregatik, etorkizuna izango dutelakoan nago.




SARA INSUA
IKASLEA

Nik urte berriari gauzak hobeto joatea eskatzen diot. Dena dela, sentsazio onak ditut hurrengo urterako. Proposamen asko eta gogo handiak ditut. Pozik egotea eta dena ondo joatea da nire eskaera printzipala.

MIGUEL ANGEL ORTIZ, IKASLEA



Datorren urtea lasaia izatea nahiko nuke. Udan Santiagorako ibilbidea egingo dut nire lagunekin Batxilergoko 2. maila amaitu dugula ospatzeko. Eguraldi ona egitea eta gauzak ondo joatea espero dut.



JON MIKEL ALONSO
IKASLEA

Datorren urteari gauzak aurten bezala ateratzea eskatzen diot. Osasuna familiarentzat eta urtean zehar gertatutakoa beti ona izatea espero dut. Udan lagunekin bidaia bat egitea gustatuko litzaidake.

AMAIA RIBERA
IRAKASLEA



Arlo pertsonalean osasuna eskatzen diot, familiarentzat eta lagunentzat. Lanean, nire ikasleek oso nota onak ateratzea *rebalida* famatu horretan, arazorik gabe, nahi eta aukeratu dituzten ikasketak egin ditzaten.



JESUS DE FRUTOS
IRAKASLEA

Nik urte berriari krisialdi bukaera heltzea eskatuko nioke, eta lana langile behartsu guztientzat. Izan ere, badakigu familia pobreak daudela eta pobrezia energetikoaren kasu oso larriak gertatzen ari direla azken bolada honetan.

XABIER CEREZO
IRAKASLEA



Alde batetik osasuna izatea eta gauzak dauden moduan geratzea. Beste aldetik orokorrean munduan gerrak amaitzea eta dauden arazoen konponbidea aurkitzea.

San Inazio BHI
Lara Diaz Ramirez



Hiperrealismoa 1973-2016

Bilboko Arte Ederren museoan egon gara *Hiperrealismoa 1973-2016* erakusketa ikusten San Inacio BHIko 4.mailako Plastika ikasleak Andoni Treku irakaslearekin.

Erakusketak mugimenduko 26 artista adierazgarrienek egindako 34 eskulturaz osaturiko aukeraketa eskaintzen digu.

Hainbat teknika berri ikasi ditugu eskultura hauekin, mota desberdinetan eginda eta oso errealista. Interesgarria da ikastea eta, era berean, ikustea nola eta zergatik zizelkariak bere eskultura egin duen, eskulturaren istorioa irakurri eta barruan sentitzea. Halaber, gai artistiko hau lantzeko modu bat baino gehiago dagoela adierazten dute, Artearen Historiako adierazpide ugariak baliatuz.

Ikusi ditudan eskultura interesgarrienak Evan Pennyrenak izan dira. Pennyren lanek giza gorputza irudikatzen dute, eta, bereziki, azala doitasun handiz islatzen du. Haren lanak oso interesgarriak eta desberdinak dira, ikusteko prespektiba guztia aldatzen dituelako, mugitzen zarenean lanak modu desberdinetan ikusten dituzulako.

Plastika klasean zizelkari bat aukeratu behar genuen. Nik, Evan Pennyren lanez hitz egitea aukeratu dut, eta bere lanez irakurtzen hasi naiz gustura.

Klaseko lagunak eroso egon gara Bilboko Arte Ederren Museoan eskulturak begiratzen, gauzak ikasten… Nire ustez, ideia ederra da nire adineko jendeak horrelako gauzak ikustea eta haietan jakin-min jartzea.

Eskerrik asko Andoni gonbidapenagatik!

Euskararen Eguna 2016

Abenduaren 2an hainbat ekitaldi eta jarduerarekin ospatu genuen gure ikastetxe eta auzoetan Euskararen Nazioarteko Eguna. Kalejira, bertso, kantu, dantza, flashmoba eta abar. Euskarari tiraka jardun genuen: Euskara gora, bihotzetik ahora!











Mugak gaindituz!

Maiz galdetu didate nola, noiz, norekin aukeratu nuen halako zerbait egitea. Zergatik errugbia, zergatik?

Esan daiteke indar faltarik ez dudala. Lagunek baieztatu dezakete hori, astakila hutsa naizela esaten dute beti. Txikitatik gustatu zaizkit indar handiko kirolak. Hala ere, hainbat urtetan saskibaloian jolastu nuen. Banekien hura ez zela nire kirola, eta uztea erabaki nuen.

Behin, lagunok kiroldegira joaten hasi ginen. Nik gorroto nuen, nahiago nuelako kontaktu apur bat egotea, lehia, komunikazioa, zerbait. Urte hartako martxoan izan zen.

Heziketa Fisikoko klasera errugbiko jokalari bat etorri zen, eta kirol hura zer zen, eta nola jolasten zen azaldu zigun. Pare bat aste geroago, neskok batu eta azaldu ziguten klubak Bilbon neska talde bat sortu nahi zuela. Entrenamenduko data eman eta han espero gintuztela esan zuten. Lagunetako inork ez zuen joan nahi, baina niri berdin zitzaidan, ezin nuen aukera hori galdu nahi. Nire adore guztia eman nuen eta entrenamendura bakarrik joatea erabaki nuen.

Entrenamendu eguna iritsi zen. 40 bat neska batu ginen, eta entrenamendu itzela izan zen. Ostiralero entrenatzen hasi ginen. Hainbat nesken falta sumatzen hasia zen.

Gaur egun, astean hirutan entrenatzen dugu. Hasieratik egon garenok gutxi batzuk gara, beste hainbat berri etorri baitira azken hile hauetan. Gure arteko harremana egunez egun estutzen da, gutxika-gutxika familia txiki bat osatzen ari gara.

Gure taldearen sorreraz gain, beste hainbat gauza aipagarri ditu errugbiak. Zorionez, gure entrenatzailea, Fredi, Espainiako selekziorako jokalariak aukeratzen dituen mutila da. Bigarren entrenatzailea jokalari ohi bat dugu, Joseba. Eta astero emakume jokalari ohiak datoz guri laguntzera. Haietako bik Euskadiko selekzioan jokatu zuten, eta nesketako batek Espainiako selekzioan.

Errugbiak beldurrik ez izaten irakatsi dit. Arazoren bat izanez gero, pentsatu gabe haren aurka egitea. Talde lana zer den ikasi dut. Baten batek gauzak bere kabuz eginez gero, katea apurtu egiten dela ikusi dut. Jausiz gero, altxatu eta aurrera jarraitu behar dela, eta aldamenekoa eroriz gero, luzatu diezaiokezula eskua. Komunikaziorik gabe ez dago nola jokatu. Entzuna izan behar zara baloia eskuartean izan nahi izanez gero, eta baloia esku artean izanda, segi aurrera!

Gutxi batzuek ulertzen dute errugbiak zer esan nahi duen, eta gutxi horiek errugbian jokatu, hau da, errugbia bizi izan duten haiek dira. Eta ezin naiz harroago sentitu Bilbo osoko neskok talde batean batu eta egin duguna egin izanaz. Estereotipo guztiak etxean utzi eta neskok aurkari bat lurreratu ahal izateko belaunak urratzeko gai garela erakutsi dugu.

Baloia eskuan izan ala ez, hainbat muga gainditu ditugu. Baina hemendik aurrera izango ditugun mugak, denok batera gainditu ko ditugu.




CENTURION



“Dantza taldea familia berezi bat ere bada”

Aspalditik Ander Poblacionek, Elorrietako auzokideak, gure kultura lagun duela gure auzoari ematen dio alaitasuna eta bizia. Hamar urte daramatza euskal dantzak eta gure instrumentuak bultzatzen.

San Inazio ikastetxeko ikaslea izan zen Ander Poblacion, eta bertan oso txikia zela dantza erakusketak egiten zituen. Jende mordoa ahoa zabalik gelditzen zen bera dantzan ikustean.



Noiz piztu zitzaizun gogoa euskal dantzak eta musikan aritzeko?
Nire familian betidanik ohitura hauek transmititu dira belaunaldiz belaunaldi. Nire aitona zenak herriko festetan dantzatzen zuen eta bere azkenengo urteetan erakutsi zidan jota dantzatzen. Horrela, hazi nintzenean, euskal kulturak gogoak piztu eta arreta deitu zidan. Eta musikaren aldetik aitak erakutsi zidan zenbait instrumentu jotzen, adibidez, panderoa eta trikitia.

Non ikasi zenuen dantza egiten?
Duela hamar urte Trabudu Dantzari Taldean sartu nintzen. Han eman nituen nire lehenengo pausoak eta bertan jarraitzen dut. Etxean transmititutako lehengo dantza urratsak zuzendu eta hobetu egin nituen euskal dantzako monitoreei esker. Baina egia esan, ikasi etxean ikasi nuela esan beharko nuke.

Zer suposatzen du zuretzat Trabudu Dantzari Taldeak?
Lehen esan dudan moduan etxean ikasi nituen zenbait dantza eta pauso, baina Trabudu Dantzari Taldeak euskal kultura maitatzeko gogoak piztu zituen nigan. Dan-tza Taldea hau, zorionez, monitore eta kideei esker ez da bakarrik talde bat, familia berezi bat ere bada. Adibidez, aurten Trabuduk 40. urteurrena ospatu du, eta dantza eta musikaz apartez euskal ezkontza bat antolatu genuen guk bakarrik, auzoari bizia eta alaitasuna emateko.

Zer lortu duzu euskal dantzari esker?
Zorionez, asko ibili naiz Euskal Herri, Espainia eta Europan zehar. Horren ondorioz, jende asko eta denetarik ezagutu dut, baina ez hori bakarrik, Espainiako eta Europako beste kultura batzuk ere ezagutu ditut. Adibidez, azken urte hauetan Galiziara, Zaragozara edota Parisera bidaiatu dut gure kultura sustatu eta zabaltzeko.



BOOKTRAILER

Literatura musika ere izan daiteke, irudiak, ahotsa, antzezpena... edo guztia batera. Eta hori da Booktrailerra.

Booktrailerra liburu bat iragartzeko sortutako bideo muntaia da. Liburuak iragartzeko ez ezik, liburuak irakurtzera motibatzeko ere balio du booktrailerrak.

Modu askotako booktrailerrak daude: bideo animazioak, musikaz, testuz nahiz ahotsez lagundutako argazki muntaiak eta abar. Gehienetan booktrailerrek liburuan agertzen den materiala erakusten dute, baina derrigorrez trailer itxura izan behar dute.

Guk, Botikazar BHI institutuan, Literatura Unibertsalean booktrailerra erabili dugu Homeroren *Odisea* liburua lantzeko.

Lehenengo planifikazio bat egin dugu, ideiak antolatu, gidoia lantzen hasi eta ondoren, musika jarri diogu, guzti hau Animoto programa erabiliz.

Emaitza bikaina izan da, oso lan polita atera da, eta horregatik animatzen zaituztegu zuek ere erabiltzera, gustatuko zaizue!

Hona hemen gure bootrailerra ikusi nahi baduzue: *animoto.com/play/Xu49PMse54QZgVufFV1SYw*

Unamuno BHI - Irati Urbina

Beldur barik!

Beldur Barik EAEko instituzioek elkarlanean bultzatuta indarkeria sexistaren prebentziorako gazteei zuzendutako programa da, eta bere helburua da, gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendarte eraldaketan laguntzeko. Alegia, Beldur Barik jarrera bultzatzea.

Urtero bideo lehiaketa bat antolatzen da, 12 eta 26 urteko gazteei zuzendua, berdintasuna bultzatzeko eta jarrera matxistak salatzeko asmoz.

Unamunoko talde feministak iaz parte hartu genuen lehenengo aldiz eta saria jaso ere! Bertan, emakumeook egunero jasaten ditugun mikromatxismoak islatzen dira.

Hala nola, esnatzerakoan egunkaria irakurri eta emakume batek jasandako eraso sexistaren berria irakurtzen du. Gero, institutuko zenbait ikaslek bere janzkerari eta gorputzari buruzko komentario deserosoak egiten dituzte. Gero, diskotekan neskei nola ipurdia ukitzen dioten ikusten da; eta hori gutxi balitz, etxera bakarrik bueltatzeari beldur dio.

Salaketa honekin emakumeok bai klasean, bai edonon askatasun osoz eta inongo beldurrik gabe egotea aldarrikatzen dugu. Honekin batera, jendeari begiak ireki eta errealitate honi buruz kontzientziatzea ere. Emakumeak ez gara objektuak eta gizonezkoen aukera berberak nahi ditugu.

Hau indartzeko, Beldur Barik programak hainbat gazte batu zituen Amurrion, eta bertan, autodefentsa, perkusio eta whatsapp tailerrak egon ziren. Arratsaldean, manifestazioa egin genuen eta gero lehiaketan parte hartu zuten bideo irabazleak ikusi genituen.

Aurten ere bideo lehiaketan parte hartuko dugu, baina oraingo honetan iragarkien rol aldaketa islatuz. Berdintasunean bizi den gizarteagatik, gora borroka feminista!



Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



"Eskerrik" gutxiago eta "eskerrik asko" gehiago




Prohibitua aparkatzea, comprenditzen da, ezta?



Euskaraz 3 ordaindu behar dira 2 eramateko. Euskaraz garestiago!



Bilbobusentzat argi dago, besteontzat ez



"Decir" aditza loterian barruraino sartzen denean

Eskurtze BHI

Bisita Iralabarriko 100. urteurrenaren erakusketara

Iralabarri auzoak 100 urte bete ditu, eta 2.DBHkook Kirikiño plazara joan ginen. Han zeuden —kartel handi batzuetan jarrita— Irala auzoko antzinako kontuak: Iralabarriren historia, nolakoa zen, zergatik daukan Irala izena, bai eta auzoan nortzuk bizi ziren ere...

Erakusketa hartan Iralabarri auzoaren ikuspegia eskaini ziguten, sortu zenetik gaur egunera arte. Hain zuzen ere, Bilboko auzo bitxi hori eraikitzen amaitu zenetik mende bat bete denean. Erakusketa hamabi panelek osatzen zuten, era askotako irudiekin hornituta.

Juan Jose Irala, auzoa eraiki zuen pertsona, 1857an jaio zen Torrelagunan (Madril), harginen familia bizkaitar batean; eta 1917an hil zen Bilbon bertan. Agueda Ametzatxurrarekin ezkondu, eta harekin hamabi semealaba izan zituen. Haren lehenengo enpresa 1882an sortu zuen: okindegi bat, La Estrella de Viena izenarekin. Geroago, Juan Jose de Iralak Harino Panadera ogitegia sortu zuen. Ikaragarrizko fabrika handia. Gaur egun Udalaren laborategiak eta bulegoak daude hartatik gorde zen eraikin bakarrean.



1919. urtearen inguruan —hain justu, Europan langile-etxebizitzaren arazoari buruz hausnartzen ari zirenean—, Ricardo Bastida udal arkitektoekin batera Torre-Urizar auzoa sortu zuen; eta, bere aldetik, Iralabarri auzoa. Etxe dotore-politak, ingeles estilokoak; Euskal Herrian, artean, ezezagunak.

1940tik aurrera, gerra ostean, auzoa gainbeheran etorri zen. 1960an hasita, hainbat etxe berri egin ziren jatorrizkoen ondoan; eta haien ordez batzuetan, auzoaren izaera berezia errespetatu gabe.

70ko hamarkadan, auzoa handitzearekin batera, agerian geratu zen hezkuntza-azpiegitura berrien beharra. Auzo-mugimenduaren presioaren ondorioz, Isabel Gallego Gorria eskola eta Lanbide Heziketako ikastetxea (gure institutua) eraikitzea lortu zen.

Aipatu behar da 1930ean itzuli zirela frantziskotarrak Bilbora, Iralabarrira, hain zuzen ere. Eta bertako izaeraren atal garrantzitsua izan direla eta badirela. Eskola bat eta Juan Mateo Zabala euskaltegia, esaterako, haiek sortu zituzten. Gaur egun, auzoko abesbatzak haienean egiten du lan.

Azkenean institutura itzuli, horretaz guztiaz hitz egin, Iralabarriren 100 urteurrenari buruzko informazioa ulertu, eta idatzi egin genuen.

Erakusketa horri esker gure auzoaren historia ikasi dugu: orain badakigu noiz eta nola sortu zen. Bai eta nola joan den aldatzen, hainbat argazki zaharren bidez. Eskerrik asko erakusketa egiten parte hartu duten guztiei, lan ederra egin dute eta.

Salestarrak Deusto
DBHko 2. maila
Anne Aburtu, Ane Vazquez, Julia Gonzalez
eta Araceli Revuelta

Aurkitu marrazki hauen izenak:







Gabonak

O	V	E	X	A	N	S	J	M	Z	Z	G	P	Q	F
M	L	G	D	T	D	U	A	R	U	X	D	G	M	J
H	I	E	X	K	L	K	T	I	H	A	V	C	B	U
Z	V	O	N	K	A	U	B	W	A	S	M	K	D	G
C	Z	N	B	T	R	N	A	B	I	G	L	K	T	F
Q	V	W	W	R	Z	R	O	Z	T	B	P	R	Z	E
B	H	G	O	A	R	E	W	B	Z	Z	D	B	D	N
K	A	I	R	A	P	O	R	V	A	D	L	C	S	V
L	A	A	Z	S	X	G	S	O	K	G	E	W	P	A
K	H	I	W	A	U	V	D	T	E	K	Q	U	R	I
D	X	C	X	K	K	Q	C	P	Y	V	M	V	Z	L
R	F	B	O	U	X	I	D	C	Y	M	C	F	X	I
X	B	U	D	R	S	F	Q	T	X	S	H	R	T	M
J	B	L	H	P	Y	J	F	A	M	Q	V	E	G	A
T	J	Y	A	M	M	W	L	U	C	X	B	E	H	F








Irakurri hurrengo definizioak eta idatzi letrak orden egokian.
Gero esaldiaren zenbakia argazki egokian ipini

1. Zuhaitzaren gainean ipintzen den objektua: **azriar**
2. Non jaio zen Jesus: **nelbe**
3. Jesusen aitaren eta amaren izenak: **imara eta ejos**
4. Gabonetan ipintzen den zuhaitzaren izena: **iupan**
5. Zuhaitzaren beheko partean jartzen diren gauzak: **akoipra**
6. Nortzuk etorri ziren Jesus ikustera bere jaiotza eta gero: **egrere gamkoa**
7. Nor doa astoz etxeetara: **tozorlene**
8. Gabonetan asko jaten dira: **katextoloa eta igtaleka**
9. Norekin egoten gara gabonetan: **mifiala**




















Bete ezazue sudokua:





San Adrian eta Miribilla

Pagasarri mendiaren mendi-hegalean dauden bilbotar auzoak dira San Adrian eta Miribilla.

Miribilla antzinean eta gaur egun

Miribilla beti egon da industriarekin oso loturik, bertako meategiak (San Luis, Malaespera eta Abandonada) ia 100 urte egon baitziren funtzionamenduan. Horiexek itxi ondoren, 1990. urtean, Bilboko Udala Miribilla berritzeko proiektua betetzen hasi zen; ondorioz, kaleak, espaloiak, mota askotako eraikinak… egiten hasi ziren. Gaur egun, 3.000 etxebizitza, jendez betetako auzoa eta edozein motatako eraikinez josita dago; hala nola, Renfeko geltokia, Miribillako eliza, Bilbao Arena, Bizkaia pilotalekua, Bilboko suhiltzaile eta udaltzaingoaren egoitza, Mercadona supermerkatua, besteak beste. Eta oraindik ez dute aldaketekin bukatu!

San Adrian Eskubaloi Kluba

Gure auzoan eskubaloia oso inportantea izan da. San Adrianeko eskola guztiek dute, gutxienez, talde bana. 1980. urtean lehenengo emakume taldea sortu zen eta handik aurrera San Adrian Eskubaloi Klubak beti izan ditu primerako taldeak.

Gaur egun, maila guztietako hamabost emakume talde ditu. Klub horrek 6 urteetatik aurrera jokatzeko aukera ematen du eta gurekin parte hartzeko munduko leku guztietako jokalariak etortzen dira.

Elkartea eskubaloia sustatzen saiatzen denez, oporraldietan 11-16 urteren arteko neska eta mutilei egokitutako eskubaloi-campusak antolatzen hasi ziren 2015ean. Baita ume txikientzako campusa ere.

Aurten, azaroaren 20an, auzoko talde guztiek parte hartzen duten ekitaldia ospatu da, jokalari guztiok inportanteak garela eta kirola praktikatzearen garrantzia azpimarratzeko.

Gure auzoarekin harro

Azken urteotan gure auzoetan bete diren aldaketarekin oso harro sentitzen gara eta nola ez, gure eskubaloi klubarekin; antzinako meategietatik gaurko auzo modernora alde izugarria dagoelako eta bizitzeko edota hazteko ez dagoela leku hoberenik pentsatzen dugulako.







Minas "San Luis".—Foto González





IBARREKOLANDAKO 2016KO KULTUR ASTEA

Urtero legez, iaz Ibarrekolandako Institutuan Euskara hizkuntza eta kultura bultzatzeko astea burutu zen. 2015/16 ikasturtean Animazio Soziokulturaleko ikasleok (GKTA), metodologia ikasgaiaren barruan, antolatzeko ardura hartu genuen gure bizitza profesionalari begira saiakera bat egiteko.

Hasieran, urduri samar geunden, baina denborarekin eta beste irakasle batzuei esker erosoago eta trankilago sentitu ginen; arduRak lotzeko Institutuko eta kanpoko jendearekin kontaktuan jarri behar izan ginen. Dena den, ez ginen bakarrik sentitu, zuzendaritza eta euskara normalkuntzako taldekideen laguntza jaso genuen, horrela aste bi horietan zehar ekintza eta tailer parte hartzaile eta informatibo ugari garatu genituen. Helburua ez zen ikasleen arreta jasotzea bakarrik, baita euren gaitasunak eta nahiak institutuan plazaratzea eta beraiek modu zuzenean eta bizian parte hartzea ere proiektuari forma emateko.

Horrela, ikasle batzuen gaitasun batzuk kontuan harturik, surfari buruzko hitzaldia, magia eta txotxongilo tailerrak eman ziren. Bestetik, irakasle eta GKATko ikasleen parte hartzea erabakigarria izan zen kanpotik etorritako profesional zein hizlariak lortu ahal izateko. Adibidez, bertsolaritzarekiko zegoen interes handia zela eta, hainbat ikasle eta irakasleei esker, Fredi Paia eta Arkaitz Estibaies bertsolariak bertaratu ziren, eta egundoko ikuskizuna eduki genuen, bai alajaina! Kirolaren presentzia ere izan genuen institutuan, Aitziber Juaristi eta Koikili Lertxundi Athleticeko jokalari ohiek hitzaldi bat eman zuten haien



Ibarreolanda BHI Anton, Lara eta Unai



bizitza profesionalari buruz, a ze nolako jakin mina egon zen!

Aste biak ziztu bizian joan ziren. Orokorrean ikasleak nahiko pozik atera ziren egindako ekintzekin, bereziki eurek antolaturikoak jendetsuak izan zirelako. Balorazio oso positiboa izan zen eta ikasleriaren esker ona jaso genuen.

Aipatzekoa da, ikasle erdaldunentzako ekintzak antolatzerakoan, hanka motz geratu ginela. Helburu bat euskara sustatzea zenez, aste kulturalaren giroa euskalduna izan zen, hala ere, ikuskizun batzuk gazteleraz edo beste hizkuntzetan ere egin ziren, antzerki eta musika emanaldiak adibidez, hauek ere bertoko ikasleen eskutik.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi diegu gure irakasle ohiei Josune eta Alaini alde batetik, eta bestetik, Ibarrekolandako Normalkuntza taldeari (Patxi, Celso eta Roberto) emandako laguntzagatik eta 2016ko Ibarrekolandako kultur astearen proiektua elkarrekin aurrera eramateagatik.



Atletismoan txapeldun

Unamuno BHIko ikasle diren Julene Herrero eta Asier del Arco atletismoaren munduan murgilduta daude eta lorpen ederrak izan dituzte.

Unamuno BHI
June Telletxea

Juleneren kasuan iaz Euskadiko Txapelketan txapeldun izan zen eta Espainiako Txapelketan ere ondo ibili zen. Beraiekin elkarrizketatxo bat izango dugu ondoren, haien bizipenen berri eman diezaguten.

Noiz hasi zineten atletismoa egiten?
Julene: Txikitan, herri lasterketak egiten nituen. Asko gustatzen zitzaizkidanez eta oso ondo pasatzen nuenez, 9 urte nituela Artxandape ikastolako taldean hasi nintzen.

Asier: Atletismoarekin duela 3 urte hasi nintzen. Txikitatik gustatu izan zait korrika egitea, eta lagun batek atletismoa gomendatu zidan momentuan, bere klubean apuntatu nintzen, eta gaur arte hor egon naiz.

Zenbat ordu entrenatzen duzue astero?
Julene: Iaz astean lautan entrenatzen nuen, baina aurten bost egun entrenatzen hasi naiz; entrenamendu hauek, bi ordu eta bi ordu t'erdi artekoak dira.

Asier: Ez ditut ordu finko batzuk entrenatzeko, astearen eta eguraldiaren arabera moldatzen naiz. Hala ere, normalean 4 edo 5 egunetan entrenatzen dut, 2 ordu egun bakoitzeko.


Zer da gehien gustatzen zaizuena? Eta gutxien?
Julene: Oro har, dena dut gustuko, baina xabalina jaurtiketa bereziki, eta hori da nik egiten dudana. Gutxien gustatzen zaidana 10 kilometroko lasterketak egitea da, ikustea gustatzen zaidan arren.

Asier: Gehien gustatzen zaidana 800 metroko lasterketak dira, hori delako gehien egiten dudana. Nik esango nuke gutxien gustatzen zaidana entrenamendu laburrak eta probak direla.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen helburuak?
Julene: Nire helburua, iaz lortu nuena errepikatzea da: Euskadiko Txapelketa berriro irabaztea eta Espainiako Txapelketarako minima egitea, hain zuzen ere. Hala ere, aurten kategoria aldatu dut eta horregatik zailagoa izango zait irabazi ahal izatea.

Asier: Niri asko gustatuko litzaidake atletismotik bizitzea, baina denok dakigu hemen, behintzat, hori oso zaila dela. Hala ere, atletismoarekin jarraitu nahiko nuke, nahiz eta bakarrik afizioa izan.

Bizi ditzagun une itxaropentsuak! Aurrera gure txapeldunak!





Ainhoa Herran eta Eider Egia



Euskara denon ahotsa

Gaur egun gehiagotan Euskadin
erabiltzen da erdera
euskaldunak ezin dugu inoiz
onartu hau egoera
oratillo abenduaren bian
euskaldun danak atera
euskara danon ahotsan jarri
lortuko dugu batera

Gaur egun hemen Euskal Herrian
erabiltze da erdera
euskaldunak ezin onartu
dezakegu egoera
abenduaren bian gogotsu
euskaldun danak atera
euskara denon artean jantzi
lortuko dugu batera



Deustu eta San Inazioko Euskararen Unibertsoak antolatuta,
2016ko Euskararen Eguneko pegatina lehiaketako irabazlea:

Lucia Benetollo (La Salle, DBH-2)

Zorionak Lucia!